



PUAN • Argentina - Italia - Alemania - Frantzia - Brasil

Benjamín Naishtat eta María Alché (zuzendariak eta gidolariak)
Marcelo Subiotto, Mara Bestelli, Leonardo Sbaraglia (antzezleak)
Federico Eibuszyc, Bárbara Francisco (ekoizleak), Tatiana Leite, Axel Kuschevatzky (ekoizlekideak)

SERGIO BASURKO

Argentinatik, María Alché eta Benjamín Naishtat zuzendarien eskutik etorri zaigu Sail Ofizialera irribarretik harago umore filosofikora garamatzen *Puan* izenburuko komedia.

Gogora dezagun bi zuzendarien artean egindako film honek ez dituela nolana egileak, Benjamín Naishtatek zuzendaritza onenaren Zilarrezko Maskorra lortu baitzuen Donostian *Roja* bere hirugarren film luzearekin (aktore onenaren eta argazkigintza onenaren sariak ere jaso zituen filmak); eta María Alchék, bestalde, Horizontes saria irabazi zuen 2018ko Zinemaldian *Familia sumergida* bere lehen filmarekin.

Bi zuzendariak filosofiarekin mundutik gertu daudela aitortu dute filmaren aurkezpenean. María Alché filosofiako ikaslea izan zen Puanen, eta Benjamín Naishtat filosofiako irakasle baten semea da. Mundu horrek erakarri zituen, eta batez ere pertsona horien bizitza nolako zen kontatzeak, "irakasleek, mundu abstraktu horretan aritu ostean, eguneroko arazoei egin behar baitiete aurre. Horri heltzeko egokiena komedia zela iruditu zitzaigun eta guk 'komedia filosofikoa' deitzen duguna eraiki dugu", azaldu du María Alchék.

Puan filmean zuzendaritza partekatzea "lan zaila izan da, baina hezitzailea", onartu du Benjamín Naishtatek. "Mundu guztiak probatu beharko luke, abentura polita eta ikaskuntza zoragarria da". Hala ere, badakite beren lan egiteko modua ez dela berdina, "niri entseguak oso baliagarriak zaitkit eta Benjaminek beste elementu batzuk jorratzen ditu, horiek konbinatzen joan gara tonu jakin bat bilatu eta unibertso beraren parte bilakatu zitezten", adierazi du María Alchék.

Pertsonaiak berak ere entsegu horietan eraiki zituztela nabarmendu du, bere aldetik, Subiotto: "Marcelo hiru arteen artean eraiki dugula sentitzen dut. Nire aldetik, antzezle bezala, beti dago itzulpen ahalegin bat, interpre-

Naishtat: "Komedia filosofiko bat eraiki dugu"



Puan filmeko ordezkaritza jendetsua, zuzendariak buru direla.

JORGE FUENBUENA

tatu egin behar baitut kanpotik eskatzen zaidana, eta zuzendariarekin hartu-eman oso interesgarria izan da", nabarmendu du. Mara Bastelli aktorearentzat ere interesgarria izan zen "bi begirada desberdin horien sintesia egin beharra".

Leonardo Sbaragliak erronka handiena pertsonaiaren gaitasunak bere egitea izan dela azaldu du: "Alemaniera ikasi behar izan dut, baita pianoa jo eta frantsesez kantatu ere. Eta Spinoza ikasi behar izan dut! Gauza guztien artean, bi zuzendari hauekin lan egin

nahi nuen eta pertsonaia hau interpretatu. Ez zen erraza izan pertsonaiari neurria hartzea, eta oso pozik nago emaitzarekin", ziurtatu du.

Bi zuzendariak duela lau urte hasi ziren gidotia idazten. Gidoiak estilo komikoa izango zuela argi izan zuten beti. "Ilusioa egiten zigun barrearekin erlaxatzeak. Barrea basatia eta sakona da. Hunkigarria izatea ere nahi genuen, eta azkenean gidoiak bide hori hartu zuen".

Istoria Argentina errealitate-
ra ere hurbiltzen da, kasu honetan

irakasleek irakaskuntza publikoa mantentzeko egin duten borrokara. Filma Argentinan eztabaida puri-purian dagoen une batean dator. Benjamín Naishtatek onartu du filma uste ez zuten dimentsioa hartzen ari dela, eta ez zutela erabat kalibratu idazten hasi zirenean. "Duela lau urte, idatzi genuenean, ez genuen imajinatzen Argentinako egungo egoera". "Ongi etorria izan dadila Hezkuntza publikoaren defentsari oihartzun gehiago emateko balio badu", amaitu du Naishtatek.

A comic approach to the world of philosophy

The Argentine "philosophical comedy" *Puan*, co-directed by Benjamín Naishtat and María Alché, is about the fight between two professors to become head of the philosophy department at a university in Buenos Aires. Both directors acknowledged during the presentation of their film in the Official Selection yesterday that they were close to the world of philosophy. María Alché studied philosophy at Puan, while Benjamín Naishtat is the son of a philosophy professor. They were particularly interested in showing what the lives of these people were like, "at the faculty where they are devoted to thinking, and in the outside world, where they have to cope with more mundane issues, and we thought that comedy was the best way to address this." They also described the process of sharing directing duties as "difficult but enlightening." They were aware that their working method isn't the same, so they were lucky to be able to rely on some great actors. "We gradually combined directing styles to find a tone that formed part of a single universe," María Alché explained.

SARTU EUSKARAZKO ETA EUSKAL EDUKIEN STREAMING PLATAFORMAN

PRIMERAN

DESKARGATU PRIMERAN APLIKAZIOA
Google Play eta App Storetik.

Hemen ere eskuragarri: SmartTV-Samsung eta LG.
Edo sartu hemen: www.primeran.eus